

## Hitzaurrea

Eskuartean duzun liburua da Francisco Ferrer Guardiaren lanik ezagunena. Bera da garaian sortutako hezkuntza bidezko gizartearen aldaketa posible zela sinistu eta burutzen saiatu ziren aukeratako baten sortzailea, Eskola Modernoa hain zuzen ere. Bartzelonan gauzatu zuen XX. mendearen hasieran.

Francisco Ferrer Guardia Alellan jaio zen, Katalunian, 1859ko urtarrilaren 14an eta 1909ko urriaren 13an fusilatu zuten Montjüic-en, Bartzelonan, berak burutu ez zituen ekintzak leporatuta.

Aldaketa-mendea dugu eta aurrekoen ideia askatzaile eta iraultzaileak bilduta, Rousseuren naturaltasunetik bertatik abiatuta, Eskola Berriaren hainbat proposamen partitzen zituela, hezkuntza laiko arrazionala aldarrikatu zuen.

Bere hezkuntza-proposamenaren oinarrian dituen ardatzak dira arrazionaltasuna, antiautorismoa, berdintasuna, idealismoa, ikaslearen nortasunari errespetua eta prestakuntza osoa, integrala. Hezkuntza marxistak azpimarratzen zuen modura, berak ere eskulana eta buru-lana uztartzen zituen, baina haiek ez bezala, subjektuaren nortasunaren garapena eta askatasuna azpimarratzen zituen. Berak sortutako irakaskuntza-metodoak norbanakoaren gaitasunak libreki garatzea du helburu, inolako agintekiarik gabe.

Zientzia da bere ustez hezkuntzak duen tresna askatzailea, eta hori aplikatzen saiatzen da berak sortutako Eskolan. Lan sortzaileak duen indar hezitzailea azpimarratzen du, laikotasunarekin batera.

Bere Eskolan hezkidetzat sustatu zuen, askatasuna baitzuen helburu izan sexuen artean izan gizarte-klaseen artean ere, zigor eta saririk gabeko jarduera hezitzailean oinarrituta eta azterketarik gabe gainera, ingurune naturalean ahalik eta txertatuen, naturaren behaketaren bitartez analisisa sustatzen zuela. Garai hartan ideia hau iraultzailea zen eta inor gutxi ausartu zen burutzen.

Hezkuntza neutroa gauzatzea zuen helburu, nahiz eta ohartu zen ezin zela erabatekoa izan; bai, ordea, ahalik eta neutroena, justizia soziala aintzat

hartuta eta bere alde borrokatuko zuten pertsonak prestatuaz. Gizartearen akats, hutsune eta injustiziak baztertu nahi zituen eta horiekin jabetu eta aldatzen saiatuko ziren subjektuak trebatu analisi-gaitasuna landuaz eta altruismoa eta elkartasuna sustatuaz.

Doktrinamendu eta mendekotasun ororen aurka zegoen, baina ez zuen deseskolatzea proposatu, I. Illichek edo E. Reimerrek egin zuten moduan, bere ustea baitzen gizartea eraldatzeko indarra zuela hezkuntzak, eta horregatik landu zuen Eskola Modernoaren aukera, bere bitartez gizarte justuagoa berre-raikitzeko. Berak hemendik eta handik hartutako ideiak hausnartzen zituen eta bakoitzetik egokien iruditzen zitzaiona hartuta sortzen bere hautu propioa.

Oso garbi zuen botere publikoengandik aske gauzatu behar zuela bere Eskola, ahalik eta autonomia handienarekin, ez baitago askatasuna lortzerik bere ustez botereari atxikitako erakunde publikoetan.

Bai Eskola Berriaren zein Eskola Modernoaren eragina nabaria izan zen berrikuntza pedagogikoan, bereziki Euskal Herrian 60ko hamarkadan gauzatutako ekimen hezitzaileetan: hainbat ikastolatan lehenbizi eta sare publikoko ekimen batzuetan ostean. Areago, egun aldarrikatzen jarraitzen da garaian proposatutako ideia nagusiak: askatasuna, berdintasuna, sexukidetasuna, segregazioa, laiktasuna, behaketa, arrazoinamendua,...

Nolanahi ere, egun, ezkerreko mugimenduen aldarrikapenak gehiago oinarritzen dira baldintzetan, askatzaileak diren prozesuen definizio zehatzak zedarrizten baino; ohikoago zaizkigu doakotasuna, masifikaziorik eza, baliabide gehiago izatea moduko aldarrikapenak. Egungo errealitatean, Euskal Herrian, adostu beharrean gaude nolako gizartea eraiki nahi dugun eta hori lortzeko bidea zein izango den, eta baldintza egokiekin jantzi; ez alderantziz.

Inork gehiago sakondu nahi badu liburu honetan agertzen diren ideietan, jakin ezazue oraindik orain bizirik dagoela egilearen berezko Fundazioa, lukuru-asmorik gabekoa dena. 1987az geroztik dihardu Eskola Modernoaren ideiak zabaltzen. Hona esteka:

<https://www.ferrerguardia.org/es/>

Lore Erriondo Korostola  
Hondarribian, 2022ko abenduan

# 1. Aurretiko azalpena

Joan den mende-bukaerako borroketan parte hartu nuen eta horrek nire uste sendoak probatu zituen.

Justizia-idealean inspiratutako iraultzailea nintzenez, askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna Errepublikaren ondorio logiko eta positiboa zirela pentsatu izan dut. Eskuarki onartzen den aurreiritziak menderatuta, ideal hori lortzeko beste biderik ez nuen ikusten gobernuaren erregimena eraldatzeko aitzindari zen ekintza politikoa baino. Beraz, Errepublikaren aldeko politikari eskaini nizkion nire ahaleginak.

Ekintza iraultzailearen gunetzat har zitekeen D. Manuel Ruiz Zorrilla-rekin harremanak nituen eta horrek iraultzaile espainiar askorekin eta errepublikazale frantses aipagarri eta ugarirekin jarri ninduen harremanetan. Haiekin maiz ibiltzeak desengainu handia sortu zidan: askorengan hipokrisiaz disimulatutako norberekeriak ikusi nituen; egiazaleagotzat hartu nituen beste batzuegan ideal urriak besterik ez nuen aurkitu; ez nuen inorengan eraldaketa erradikala egiteko asmorik antzeman, kausen sakoneraino jaitsiz, eraberritze sozial perfektu baten bermea izango zen eraldaketa, alegia.

Parisen bizi izan nintzen hamabost urteetan Errepublikarentzat arriskua izan ziren boulangismoaren, dreyfusismoaren eta nazionalismoaren krisiak ikusi nituen eta hartutako eskarmentuak herri-hezkuntzaren arazoa ez zegoela konponduta konbentzitu ninduen. Frantzian ez bazegoen, ezin nuen espero errepublikanismo espainiarrak konponduko zuenik, hezkuntza-sistemak herri batentzat duen garrantzi nagusiaren aurrean beti erakutsi baitzuen ezjakintasun deitoragarria.

Imajina ezazu zer izango litzatekeen egungo belaunaldia alderdi errepublikano espainiarrak, Ruiz Zorrilla erbesteratu ondoren, eskola arrazionalistak sortu izan balitu batzorde, gune libre-pentsalari edo logia masoniko bakoitzaren ondoan. Batzordeetako lehendakariak, idazkariak eta

bokalak etorkizuneko errepublikan hartu beharko zuten enpleguaz kezkatu beharrean, herri-heziketaren alde buru-belarri lan egin balute, zenbat aurreratuko zatekeen hogeita hamar urtetan haurrentzako eguneko eskoletan eta helduentzako gau-eskoletan.

Kasu horretan, poztuko al litzateke herria monarkikoek aurkeztutako Elkarteon Legea onartzen duten diputatuak Parlamentura bidaltzearekin?

Mugatuko al litzateke herria ogiaren salneurriaren igoeragatik matxinadak sustatzera, besteren lanaz aberastu direnek behar ez dutenaren oparotasunaz gozatzearren langileari ezarritako gabezien aurka asaldatu gabe?

Egingo al lituzke herri ahulak kontsumoen aurkako matxinadak, pribilegio tiraniko oro ezabatzeko antolatuta beharrean?

Elkarte Filoteknikoan eta Frantziako G.O.<sup>1</sup> delakoan espainierako irakasle gisa nuen egoerak mota guztietako pertsonekin jarri ninduen harremanetan, bai berezko izaeragatik, bai haien maila sozialagatik ere. Multzo handian eragiteari zegokionez, zer promesten zuten ikusteko asmoz aztertu nituen, eta norbanako zentzuan bizitzatik ahalik eta etekinik handiena ateratzeko prest zegoen jendea besterik ez nuen ikusi: batzuek espainiera ikasten zuten beren lanbidean aurrera egiteko; beste batzuek espainiar literatura ikasteko eta beren karreran hobetzeko; zenbaitek beren gozamenetan intentsitate handiagoa lortzeko ere, hizkuntza hitz egiten den herrialdeetatik bidaiatuz.

Absurdo nagusiak ez zuen inor harritzen sinesten denaren eta jakiten denaren artean dagoen kongruentziarik ezagatik. Inor ere ez zen ia kezkatzen giza elkartasunari forma arrazional eta zuzena emateaz, hau da, belaunaldi bakoitzeko bizidun guztiei aurreko belaunaldiek sortutako ondarean zegokien partizipazioa emateaz.

Aurrerabidea zoritxar moduko bati emana ikusi nuen, gizakien ezagutzatik eta ontasunetik independente, eta giza kontzientziaren ekintzak eta energiak esku hartzen ez duten gorabeheri eta ustekabeei lotuta. Norbanakoa desitxuratua eta endekatua sartzen zen gizartean. Hain zuzen ere, norbanako hori familian atabismo neurrigabeekin, amen ezjakintasunak betiketutako oker tradizionalekin hezia zegoen, eta eskolan okerra baino zerbait

---

1. *Grand Orient de France, Le: Frantziako masoneria.*

txarragoarekin, ustezko agerkunde jainkotiar baten izenean dogmatizatzen dutenek ezarritako gezur sakramentalarekin. Harengandik ezin zen, beraz, kausa-efektu erlazio logikoagatik, emaitza irrazional eta kaltegarriak baino exijitu.

Nire harremanetako pertsonetikiko tratua proselitismo-ideiak inspiratzen zuen beti eta bakoitzaren erabilgarritasuna epaitzera zuzentzen zen, nire idealaren ikuspegitik. Ez nuen denbora luzea behar izan konbentzitzeko D. Manuel inguratzen zuten politikariak ezin zirela aintzakotzat hartu; nire iritziz, ohorezko salbuespenek barka nazatela, goranahi damugabeak ziren. Egoera horrek agente judizialak nire kaltetan erabili nahi izan zuen halako adierazpenari bidea eman zion, niretzako inguruabar larri eta goibelak sortuz. Izan ere, D. Manuelek, gogo handiko gizona eta giza miserien aurka ez nahiko zuhur, irtenbide logiko bat eta, beraz, beti erradikala azaltzen ikusten ninduen bakoitzean anarkistatzat jotzen ninduen. Irtenbide hori, jakina, D. Manuel inguratu eta erabili ere egiten zuten iraultzaile espainiarrek erakusten zituzten erabakimen oportunisten eta erreizunezko erradikalismoen aurkakoa zen, baita burgesiarentzat onura positiboko politika bati jarraitzen zioten errepublikazale frantsesen aurkakoa ere, utopia orotatik distantzia gordetzeko aitzakia jarritz, proletario behartsuari on egin diezaiokeen denetik ihes egiten baitzuten.

Laburtuz eta zehaztuz: berrezarkuntzaren lehen urteetan Ruiz Zorrillarekin batera konspiratu zuten gizonak gero monarkiko konbentzituak agertu dira banku urdinetik. 1874ko urtarrilaren 3ko estatu-kolpearen aurkako protesta bizirik eduki zuen gizon duin hura, xumea zintzoegia zelako, lagun faltsu haiei fidatu zitzairen, politikarien artean maiz gertatzen dena gertatuz, hots, gehienek buruzagi errepublikazalea alde batera utzi zuten kartera bat edo goipostu bat onartzeko. Duintasunez bere burua saltzen ez dutenen atxikimendua besterik ezin izan zuen aintzat hartu, baina azken horiek kezkegatik ez dute bere pentsamendua goratzeko logikarik eta bere ekintza sustatzeko energiarik.

Asensio Vega, Cebrián, Mangado, Villacampa eta gutxi gehiagotatik ez balitz izan, D. Manuel urte askoan abertzalez mozorrotutako handinahien eta espekulatuzaileen jostailu izango zen.

Haren ondorioz, nire ekintza ikasleengana mugatu nuen eta nire esperimentuetarako ustez egokienak eta prestuenak aukeratu nituen.

Lortu nahi nuen helburuaren pertzepzio garbia nuen; nire irakasle-mailak eta izaera irekiak nolabaiteko sona ematen zidaten; eta nire betebeharrak profesionalak betetzen nituen, nire ikasleekin hainbat gairi buruz hitz egiten nuen. Batzuetan ohitura espainiarrez, beste batzuetan politikaz, erlijioz, artez, filosofiaz, eta beti saiatzen nintzen emandako iritziak zuzentzen, batez ere neurritz gainekoak edo gaizki oinarrituak izan zitezkeenak. Halaber, norberaren irizpidea sektaren, eskolaren edo alderdiaren dogmaren eraginpean jartzean dagoen eragozpena nabarmentzen nuen, zoritxarrez hain zabalduta dagoena. Horrela maiz lortzen nuen bere sinesbide partikularragatik urrundutako norbanakoak, eztabaidatu ondoren, hurbildu eta bat etortzea, lehen eztabaidatzen ez ziren eta fedegatik, obedienciaz edo men egite zuriztaile hutsagatik onartzen ziren sinesmenen gaintik jauzi eginez. Hori dela eta, nire lagunak eta ikasleak zoriontsu sentitzen ziren, oker lotsagarri bat alde batera utzi zutelako eta goratzen eta duintzen dituen egia bat onartu zutelako.

Logikaren zorroztasunak, zentsurarik gabe eta egokieraz aplikatuta, koska fanatikoak berdindu zituen, adostasun intelektualak ezarri zituen eta nork daki zein puntutaraino eragin zituen borondateak zentzu aurrerakoian.

Elizaren aurka zeuden librepensariak, baina Genesiaren zentzugabekeriei, Ebanjelioaren moral desagokiari eta zeremonia eklesiastikoei amore ematen zietenak; errepublikazale gutxi gorabehera oportunistak; herritartasun-tituluak duen berdintasun demokratiko murriztuarekin pozten ziren erradikalak, baina klase-desberdintasunean eragin txikiena ere izan gabe; egia fraseologia huts baten gainean oinarrituz, labirinto metafisikoen artean kausa nagusia aurkitu nahi zuten filosofoak; horiek guztiek ikusi ahal izan zuten besteren eta norberaren okerra; denak edo gehienak sen onerantz orientatu ziren.

Nire bizitzako hautabideek lagun haiengandik urrun eraman ninduten, batzuek beren adiskidetasunaren adierazpena ziegaren barrenera bidali zidaten, non askatasuna espero bainuen nire errugabetasunean fidaturik. Guztiongandik espero dut ekintza aurrerakoi ona eta eraginkorra, eta pozik nago haien orientazio arrazionalaren kausa erabakigarria izan naizelako.